

erakusketaren aldizkaria
28. zbk.

periódico de la exposición
nº 28

KM Kulturunea
Erakustaretoa
Donostia

KM Kulturunea
Sala de Exposiciones
San Sebastián


1998ko abenduak 3 - 1999ko otsailak 6

3 diciembre 1998 - 6 febrero 1999

Transgenéric@s

Juan Pablo Ballester
LSD
Miguel Benlloch
Jesús Martínez Oliva
Nuria Canal
Chelo Matesanz
Helena Cabello y Ana Carceller
Joan Morey
Carles Congost
Carmen Navarrete
Ricardo Cotanda
Marina Núñez
Txaro Fontalba
Estíbaliz Sadaba
Alex Francés
Eduardo Sourrouille
Nuria León
Eulalia Valldosera


Azucena Vieites



TRANSGENERIKOAK.

Gizarte, sexualitate eta generoei buruzko irudikapen eta esperientziak espainar arte garaikidean

Gaurko egunean, badakigu artasuna ez dela soilik gizonezkoen gauza eta emetasuna soilik emakumeena, baizik eta bata zein bestea historiak hartaratutako eraiki soziokulturalak direla. Ikuspuntu horretatik abiatuta artista asko jende gehienaren ustearen aurka altxatu da, hau da, norbanakoaren portaera biologiak programatua eta (hala izan behar ez duelarik ere) genero jakin bati lotua dagoela dioen ustearen aurka, eta, altxatze horretan, gizarte arau zehatzak urratzen dituzte, ezarritako mugak hausten, eta generoetan zehar ibiltzen saiatzen dira. Genero hausteak esan nahi du, bada, norbanakoa ez dagoela eroso esleitu zaion gizaseme edo emakume portaeraren barruan, edo, gutxienez, bere jarrera ez dagoela guztiz ados gizartean zutik dirauten rolekin eta gizarteak espero duenarekin.[1]



Estíbaliz Sadaba. *Escucha al hombre - hembra.*

Artearen historian sexualitatearen irudikapenaren adibideak ezin konta ahala dira. Egia da, baita, garaiaren edo kulturaren arabera, irudikapen horiek oso desberdinak izan direla.

Hirurogeiko urteetan hasita oraindaino, teoria feministek eta azterlan gay, lesbiko eta transexualek, horietariko taldeen ekintzekin batera, aldaketa ekarri dute (eta oraindik ekartzen ari dira) sexu arteko desberdintasunen eta beren irudikapenen sistema tradizionaletara. Gaur egun, amerikar zein europar artista gazte asko maskulinoaren eta femeninoaren arteko betiko polarizarioetan ezegonkortasuna sartzen saiatzen ari dira, horretarako sexu arteko diferentziak baino urrunago dauden konfigurazio etiko eta formal berriak aurkeztuz.

Mar Villaespesak eta Juan Vicente Aliagak, erakusketako arduradunak biak, beren testuetan azaltzen digute zer ikusteko duten erakusketarako hautatutako artelanek generoei buruzko azterlan feminista, gay eta lesbikoekin, alde batetik, eta *queer*[2] kulturako enuntziatuekin, bestetik, *queer* kulturak identitateen mugikortasuna, sexu zentsuraren aurkako borroka eta sexu askatasunaren aldarrikapena nola azpimarratzen duen begiratuta.

"Transgenerikoak" erakusketan, izatez edo bizilekuz espainolak diren hogei bat artistaren lanak ageri dira. Artista horiek gizon-emakumeen, generoaren eta sexu diferentziaren irudikapen sistema nagusiak gaur egun zertan diren aztertzen eta hausnartzen dute. Argazkia, pintura, eskultura, iragarkiak, marrazkia, collagea, bideoa, instalazioa, performancea, denetariko bitartekoz egindako lanak hartu dira erakusketa honetan, eta artistek nahi duten soluzio plastikoa erabiliz askatasunez adierazi ahal izan dute nork berea. Lan konprometituak dira, probokatzaileak batzuk, iraultzaileak beste batzuk, baita aztoratzaileak ere beste batzuk. Dela identitate sexuala, dela genero baten edo bestearen portaera, direla rol tradizionalak edo gaur egun pertsonak beretzat hartzen dituen rol berri-berriak, era guztietako gaiak adierazten eta argitara ekartzen dituzte. Eta hainbat ikuspuntutatik (gertaerak zuzenean aurkeztuz, diskurtso kritikoak aukeratuz, irakurketa sinbolikoak, ironikoak eta umoretsuak erabiliz, e.a) egindako proposamen horiek guztiak lagungarriak dira muga zentzugabeak zeharkatzeko, kulturazko muga ezarriak ezabatzeko, eta sexuek (gizon-emakume) generoekin (maskulino-femenino) eta sexu hautapenekin duten erlazioaz dauden ikusmolde mugatzaile eta estugarriak gainditzeko. Erakusketaren arduradunek azaldu bezala: generoa, emetasun eta artasun baloreak eta beren arteko joan-etorriak eta horren irudikapenak gaurko arte espainolean zer aztarren utzi duen aztertu nahi dugu erakusketa honekin.

1 José Miguel G. Cortés, *Mi anillo, señor, mi anillo de oro viejo (Nire eraztuna, jauna, urre zaharrezko nire eraztuna)*

2 Erakusketako katalogoan argitaratu diren Juan Vicente Aliaga, Lawrence Rinder eta Nayland Blake-ren testuek zabal azaltzen dute *queer* teoria.

TRANSGENÉRIC@S.


Representaciones y experiencias sobre la sociedad, la sexualidad y los géneros en el arte español contemporáneo.

Hoy en día sabemos que lo masculino no es exclusivo de los hombres, ni lo femenino de las mujeres; sino que ambos son constructos socio-culturales históricamente determinados. Es bajo este punto de vista el que muchos artistas, oponiéndose a la creencia mayoritaria que el comportamiento de un individuo está biológicamente programado y asociado a un género al que no se debe pertenecer, violan las normas sociales definidas, transgreden las fronteras establecidas e intentan una travesía simbólica a través de los géneros. El transgredir de los géneros significa que el individuo no se siente cómodo, dentro del comportamiento de hombre o mujer asignado o, al menos, que su actitud no es totalmente congruente con los roles y las expectativas que la sociedad mantiene.[1]

La historia del arte posee infinidad de ejemplos sobre la representación de la sexualidad. Es cierto también que dependiendo de la época o de la cultura estas representaciones se han manifestado de forma muy diferente.

Desde los años sesenta las teorías feministas, los estudios gays, lésbicos y transexuales, así como las acciones que estos colectivos han llevado a cabo han contribuido al cambio que se ha producido (y que continúa produciéndose) en los sistemas tradicionales de diferencia sexual y en las representaciones de los mismos. Actualmente muchos artistas jóvenes, tanto americanos como europeos, muestran interés en desestabilizar las polaridades tradicionales de lo masculino y lo femenino, presentando nuevas configuraciones éticas y formales que se sitúan más allá de la diferencia sexual.

Tanto Mar Villaespesa como Juan Vicente Aliaga, comisarios de la exposición, explican en sus textos respectivos la relación existente entre las obras seleccionadas con los estudios feministas, gays y lésbicos sobre los géneros y con los enunciados de la cultura *queer*[2] en la manera en la que ésta enfatiza en la movilidad de las identidades, en el combate contra la censura sexual y en la reivindicación de una libertad sexual.



Azucena Vieites. Sin título.



Ricardo Cotanda. *Testigo*

Transgenéric@s muestra la obra de una veintena de artistas españoles o residentes en España que analizan y reflexionan sobre el estado actual de los sistemas de representación dominantes sobre el hombre y la mujer, el género y la diferencia sexual. Esta exposición da cabida a diferentes medios expresivos como la fotografía, la pintura, la escultura, la publicidad, el dibujo, el collage, el vídeo, la instalación, la performance, soluciones plásticas que han permitido al artista expresarse libremente. Son obras comprometidas, a veces provocadoras, otras veces subversivas e incluso perturbadoras, que manifiestan y sacan a la luz todo tipo de cuestiones sobre la identidad sexual, sobre el comportamiento de un género u otro, sobre los roles tradicionales o, por el contrario, completamente nuevos que la persona asume actualmente. Todas estas propuestas, tratadas a partir de diferentes puntos de vista (presentación directa de los hechos, elección de discursos críticos, utilización de lecturas simbólicas, enfoques irónicos y humorísticos...) contribuyen a atravesar fronteras absurdas, a borrar límites culturales impuestos y a superar concepciones limitadoras y constreñidoras en cuanto a la relación de los sexos (hombre-mujer) con los géneros (masculino-femenino) y las diferentes opciones sexuales. Como lo explican los comisarios de la exposición: lo que pretendemos con esta exposición es explorar los temas del género, de los valores masculinos y femeninos, y sus trasvases y la huella que dicha representación ha dejado en el arte español contemporáneo.



Eduardo Sourrouille. *Sin título.*

1 José Miguel G. Cortés, *Mi anillo, señor, mi anillo de oro viejo.*

2 Los textos de Juan Vicente Aliaga, Lawrence Rinder y Nayland Blake, publicados en el catálogo de la exposición desarrollan ampliamente la teoría *queer*.

KM Kulturunea
Erakustaretoa
Urdaneta, 9
20006 DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN
Tel.: 482750 Faxa.: 482755
sala@kultura.gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net

Ordutegia:

Asteartetik larunbatera: 10:30 - 14:00 / 16:00 - 20:30
Astelehen, igande eta jaiegunetan itxita
Sarrera dohainik

Katalogoa:

Transgenerikoak. Gizarte, sexualitate eta generoei buruzko irudikapen eta esperientziak espainar arte garaikidean.

Testua:

Mari Fran Machín. Katalogoaren testutik jasotako informazioak.

KM Kulturunea
Sala de Exposiciones
Urdaneta, 9
20006 DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN
Tel.: 482750 FAX: 482755
sala@kultura.gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net

Horario:


De 10:30 a 14:00 / 16:00 - 20:30, de martes a sábados
Lunes, domingos y festivos cerrado
Entrada gratuita

Catálogo:

Transgenéric@s. Representaciones y experiencias sobre los géneros, la sociedad y la sexualidad en el arte español contemporáneo.

Texto:

Mari Fran Machín. Informaciones recogidas en los textos del catálogo.



Urdaneta Kalea
(Sarrera Nagusia)
(Acceso Principal)